**INGURUMENEKO TOKIKO FOROAREN BILERAREN AKTA**
**(16.03.09)**

HIRIGINTZA ZINEGOTZIA:
JOSEBA ARREGI jauna

INGURUMEN ZINEGOTZIA:
JOSÉ LUIS LANDA jauna

INGURUMEN TEKNIKARIA:
JOSU ATEKA jauna

FOROKO IDAZKARIA:
ARANTZA CABEZA andrea

INGURUMEN AHOLKULARIA:
EUGENIA ATIN andrea

GOIENER:
EDUARDO URTURRI jauna

BERTARATUAK:

CARLOS ARANA jauna (Europak erakundeko ordezkaria)
JON IÑAKI LLONA jauna (Basozaleakeko ordezkaria)
XABIER BUENETXEA jauna (Ingurumen gaietan izen handikoa)
JOSU INTXAURRAGA jauna (Itxartu Taldea)
JAVIER LOIDI jauna (unibertsitate-mundukoa)
NATIVIDAD MORALES andrea (Gizatiar elkarteko ordezkaria)
AGURTZANE OLAIZ EGURROLA andrea (Eskola Agenda 21 eta Romoko ikastetxe publikoko irakaslea)
CELIA MARAÑON andrea (Ekologistak Martxan)
KOLDO NABASKUES jauna (Urkoa Kontsumitzaileen Elkarteko ordezkaria)
JUANJO QUIÑONES jauna (Urtealaiak elkartearen ordezkaria)
DIMAS RAMOS jauna (Kirol Elkarteak)

Ondokoek ezin izan dute etorri: JAVIER GALÁN jauna (GetxoEnpresako presidentea), TOMI ETXEANDÍA jauna (Eskola Agenda 21 eta San Nikolas Ikastolako irakaslea) eta JOSÉ GÓMEZ jauna (Ingurumen gaietan izen handikoa).

Getxon, 2016ko martxoaren 9an, arratsaldeko zazpietan bildu da Getxoko Ingurumeneko Tokiko Foroa, eta arestian aipatutako kapitularrek parte hartu dute.

**AZTERGAIEN ZERRENDA**

Bileraren hasieran, Eugenia Atin andreak bertaratu ezin izan diren foroko kide batzuen berri eman du, arestian adierazitakoak. Ondoren, Jon Iñaki Llona eta Javier Loidi jaunak aurkeztu ditu. Lehenengoa Basozaleak elkartearen ordezkaritzan etorri da forora eta bigarrena, UPV / EHUko botanika-katedraduna delarik,

**ACTA DE LA REUNIÓN DEL FORO LOCAL DE MEDIO AMBIENTE**
**(09.03.16)**

CONCEJAL DE URBANISMO:
D. JOSEBA ARREGI

CONCEJAL DE MEDIO AMBIENTE:
D. JOSÉ LUIS LANDA

TECNICO DE MEDIO AMBIENTE:
D. JOSU ATEKA

SECRETARIA DEL FORO:
Dª ARANTZA CABEZA.

CONSULTORA MEDIOAMBIENTAL:
Dª EUGENIA ATIN

GOIENER:
D. EDUARDO URTURRI

ASISTENTES:

D. CARLOS ARANA (Representante de Europak).
D. JON IÑAKI LLONA (Representante de Basozaleak).
D. XABIER BUENETXEA (Persona de reconocido prestigio en Medio Ambiente).
D. JOSU INTXAURRAGA (ItxartuTaldea).
D. JAVIER LOIDI (Persona del mundo de la universidad).
Dª NATIVIDAD MORALES (Representante de la Asociación Gizatiar).
Dª. AGURTZANE OLAIZ EGURROLA (Agenda Escolar 21 y profesora del Colegio Público de Romo).
Dª CELIA MARAÑON (EkologistakMartxan).
D. KOLDO NABASKUES (Representante de la Asociación de Consumidores Urkoa).
D. JUANJO QUIÑONES (Representante de Urtealaiak).
D. DIMAS RAMOS (Asociaciones Deportivas).

Excusan su no asistencia, D. JAVIER GALÁN (Presidente de GetxoEnpresa), D. TOMI ETXEANDÍA (Agenda Escolar 21 y profesor de la Ikastola San Nikolas), y D. JOSÉ GÓMEZ (Persona de reconocido prestigio en Medio Ambiente).

En Getxo, a 9 de marzo de 2016. Se reunió a las diecinueve horas de este día el Foro Local de Medio Ambiente de Getxo, con asistencia de los capitulares reseñados.

**ORDEN DEL DÍA**

Al comienzo de la reunión, Dª Eugenia Atin excusa la no asistencia de algunos miembros del Foro anteriormente citados y da paso a la presentación de D. Jon Iñaki Llona que acude al Foro en representación de Basozaleak y de D. Javier Loidi, catedrático de botánica de la UPV/EHU, que acude al Foro

unibertsitate-munduari lotutako pertsona gisa etorri da forora. Azken hori lehenengo aldiz etorri da eta labur azaldu ditu haren ibilbide pertsonala eta lan-ibilbidea.

como persona vinculada al mundo de la universidad, lo hace por primera vez y explica brevemente su trayectoria personal y laboral.

**1.- Goiener kooperatibaren aurkezpena: "Gaur egungo sistema elektrikorako aukerak. Energia berriztagarriak".**

**1.- Presentación de Goiener: "Alternativas al sistema eléctrico actual. Energías renovables."**

Eduardo Urturri jaunak egin du aurkezpena, Goiener kooperatibako ordezkari eta bazkide sortzaileak.

Exposición a cargo de D. Eduardo Urturri, representante y socio fundador de la cooperativa Goiener.

Goiener irabazi-asmorik gabeko herritarren energia-kooperatiba da. Kooperatibako kideek Ingurumenarekiko konpromisoa dute eta aktiboki lortu nahi dute gaur egungo energia-eredua aldatzea, alegia, fosiletatik sortzen den energia merkaturatzen duten enpresa handiek burutzen duten eredua.

Goiener es una cooperativa energética ciudadana sin ánimo de lucro. Está formada por personas comprometidas con el Medio Ambiente que quieren, activamente, un cambio en el actual modelo energético liderado por grandes compañías que comercializan energía de origen fósil.

Goiener 2012. urtean sortu zen sari baten abalari esker, hain zuen Goiekik, Goierriko merkataritza garapen-agentziak, ematen duen enpresa-ideia berrien sariarena. 32 sustatzailek hasi zuten kooperatiba, eta egun, 2016ko martxoan, 4.133 bazkide baino gehiago ditu.

Goiener nace en 2012 avalada por el Premio de Nuevas Ideas empresariales de Goieki, la agencia de desarrollo comercial de Goierri. Arranca con 32 personas promotoras y en marzo de 2016 son más de 4.133 personas socias.

Beste alde batetik, Goiener energia-ereduaren aldaketa bultzatzen duen herritarren aukera da. Hain zuzen, jatorri % 100 berriztagarria duen energiaren eskaera goratu nahi du eta, horretarako, bazkideentzako energia elektriko % 100 berriztagarria merkaturatzen du, jatorri-ziurtagiria eta guzti. Bestalde, iturri horien bitartez energia sortzeko proiektuen plangintza egiten du.

Goiener es también la alternativa ciudadana que promueve el cambio de modelo energético aumentando la demanda de la electricidad de origen 100% renovable al comercializar para las personas socias energía eléctrica 100% renovable, con certificado de origen. Igualmente planifica proyectos para generar energía a partir de estas fuentes.

Egun, banaketa-sareak dira negozioaren ardatza, eta Goienerren xedea energia-eredu berri bat sortzea da, zeinak energia gizakien oinarrizko eskubidetzat joko duen −energia izatea funtsezkoa baita gizaki orori beharrezko ondasunak eta zerbitzuak hornitzeko− eta bidezko modu batean banatuko duen, gizarteari nahiz ingurumenari dagokienez. Ildo horretatik, "energia-pobrezia" delakoa ezabatzeak lehentasuna izan behar du gure gizartean.

Hoy en día el núcleo del negocio está en las redes de distribución y Goiener aspira a un nuevo modelo energético que reconozca la energía como un derecho básico de las personas (ya que su disponibilidad es esencial para la provisión de los bienes y servicios necesarios para todo ser humano) y cuyo reparto sea justo, tanto social como ambientalmente. En ese sentido, la erradicación de la llamada "pobreza energética" debiera ser una prioridad de nuestra sociedad.

2013ko urritik, bazkideek aukera dute euren etxe, enpresa eta erakundeetako elektrizitatea Goienerren eskutik kontratatzeko. Horrela, merkatu elektrikoan energia berriztagarriaren eskaera areagotzen dute. Partikularrentzat eskaintzen dituzten tarifak merkatukoen antzekoak dira, baina abantaila hau dute: kooperatibarenak kontratatuta, energia bigun eta berriztagarrien merkatua bultzatzen da ohiko kontsumoaren bitartez.

Desde octubre de 2013 los socios y socias pueden contratar la electricidad de sus hogares, empresas o instituciones con Goiener y, con esta acción, aumentan la demanda de energía renovable en el mercado eléctrico. Las tarifas para los particulares son similares a las del mercado, pero con la ventaja de potenciar, a través de su consumo habitual, el mercado de energías limpias y renovables.

Kooperatibak 8 langile ditu eta Euskadin du egoitza (Ordizian). Bazkideak, batik bat, EAEkoak eta Nafarroakoak dira, baina ez dago bazkide egiteko inolako lurralde-baldintzarik.

La cooperativa cuenta con 8 trabajadoras y están ubicados en Euskadi ( sede en Ordizia) y los socios son principalmente del País Vasco y Navarra, aunque no hay restricción territorial para ser socio.

Goienerrek energia berriztagarrien aldeko apustua egiten du, CO2-ko isuriak murritzeko eta ingurua eta ingurumena zaintzen laguntzeko. Horiei esker, energia-mendekotasuna murrizten da. Izan ere, EAEn energia-mendekotasuna % 92koa da, eta horrek arazoa dakarkie bai ekonomia orokorrari, bai bazkide bakoitzaren ekonomiari.

Goiener apuesta por las energías renovables para disminuir nuestras emisiones de CO2 y contribuir al cuidado del entorno y del Medio Ambiente. Reducen la dependencia energética, que en el caso de Euskadi se eleva al 92%, y que supone un trastorno para la economía en general y la de las personas socias en particular.

Goienerrek hitzaldiak egiten ditu eta, horien bidez, gaur egungo energia-ereduaren ondorioak ematen ditu jakitera, bai eta horien aurrean dauden proposamenena ere, hala nola Goiener, egoera horretarako irtenbidea bilatzen baitu.

Mediante charlas Goiener informa sobre las consecuencias del actual modelo energético y las propuestas existentes que, como Goiener, buscan solucionar dicha situación.

Erraza da Goienerren bazkide egitea; formulario bat dute sarean horretarako, partikularrak, enpresak, elkarteak nahiz beste kooperatiba batzuk bazkide egin daitezen. Baldintza bakarra kuota ordaintzea da, 100 eurokoa, bakarrik kooperatibaren kapital sozialerako dena. Ordainketa banku-transferentzia baten bidez egiten da. Behin hori eginda, bazkide-zenbakia esleitu egiten da eta kooperatibak egiten dituen ekintzei buruzko jakinarazpen guztiak bidaltzen dira.

Bazkidetu ondoren, bazkideek egun duten energia elektrikoko hornitzailea aldatu dezakete eta Goiener kontratatu. Kooperatibak, merkaturatze-enpresa izanik, ziurtagiria emango du, ohiko elektrizitate-kontsumorako energia % 100 berriztagarri erosi izanari buruzkoa. Horrenbestez, kontusmoa Goienerren bidez egitean laguntza ematen da, merkatu energetikoan energia berriztagarrien eskaera handitzen baita.

Goienerrek erakunde kolaboratzaileak onartzen ditu (GOIEKI, FIARE, REAS Euskadi, BioAlai, Berako Udala, Asparrenakoa eta beste hainbat kolaboratzaileak dira). Kolaboratzaileen partaidetza eta ekarpena jardueren jarraipen logikoa dira. Egun, erakunde horiek gutxieneko ekarpenekin laguntzen dute: 1.000 euro kapital sozialerako.

Goienerrekin izango diren aurrezkiak bazkideek egun kontratatuta duten merkaturatze-enpresaren tarifaren araberakoa izango da. Aurrezkiei dagokienez, familien kasuan oso desberdintasun txikiak izaten dira, baina erakundeek %10 eta % 15 bitartean aurreztu dezakete, besteak beste, enpresek, udalek, elkarteek, eta hotelek.

Goienerrek, egun, zenbait udalen energia merkaturatzen du, esaterako, Mungiako eta Busturiako Udalena. Halaber, Bilboko eta Usurbilgo Udaletako gizarte ekintzako arloekin zenbait gai lantzen ditu, hala nola energia aurreztea, energia-pobrezia eta bonu soziala. Hain zuzen, gizarte-langileei informazioa eta gaitasunak ematen dizkie familiei baliabideak eskaini diezazkieten.

Eduardo Urturri jaunaren aurkezpenaren ostean, galderak eta iruzkinak egiteko txanda ireki da.

Javier Loidi jaunak adierazi du egia dela, energia ez dela *commodity* bat. Haren ustez, ia-ia Inkisizioa bizitzen ari gara, eta ezin du ulertu botere publikoek zergatik jarduten duten modu horretan. Ordezko energia mota guztiak baliatu behar dira, hala nola olatuak, eta leku guztietan jarri behar dira eguzki-panelak eta errotak.

Xabier Buenetxea jaunak galdetu du gasaren eta elektrizitatearen fakturak banatu ote daitezkeen, Goiener elektrizitatea merkaturatzen has dadin. Baietz erantzun diote. Bestalde, Xabier Buenetxea jauna energia berriztagarrien aldekoa da, baina aditzera eman ditu haize-parke handiek hegaztiei sortzen dizkieten arazoak. Hori dela eta, adierazi du aztertu beharra dagoela nola izan dezaketen eragin txikiagoa eta kokapen egokienak bilatu behar direla. Autokontsumorako errota txikiek ez dute eraginik faunarengan, eta energia nahikoa hornitzen dute. Ildo horretatik, gogora ekarri dute legeak debekatzen dituela taldekatzeak, hau da, erkidego batek, Sopelmar esate baterako, ezin du haize-sorgailurik jarri, maila partikularrean bakarrik jarri daitezke.

Es fácil asociarse a Goiener a través de un formulario online para que particulares, empresas, asociaciones u otras cooperativas puedan asociarse. El requisito único es aportar 100€ de cuota única para el capital social de la cooperativa. El ingreso se realiza mediante transferencia bancaria, y así se recibe el número de socio o socia y todos los comunicados referentes a las acciones que realiza la cooperativa.

Después de asociarse, se puede solicitar el cambio del actual proveedor de energía eléctrica a Goiener, que como comercializadora aportará un certificado de compra de energía 100% renovable en el consumo habitual de electricidad. Así, consumir con Goiener, es ya un apoyo, porque aumentas la demanda de energías renovables en el mercado energético.

Goiener admite la presencia de entidades colaboradoras (véase GOIEKI, FIARE, REAS Euskadi, BioAlai, Ayuntamientos de Bera, Asparrena, etc.), cuya participación y aportación a Goiener se ven como continuidad lógica de sus respectivas actividades. Actualmente estas entidades participan con aportaciones mínimas de 1.000 euros al capital social.

El ahorro con Goiener va a depender de la tarifa que se tenga contratada con la comercializadora actual. En familias, el ahorro suele ser mínimo pero para entidades como empresas, ayuntamientos, asociaciones, hoteles, etc., el ahorro puede ser del 10-15%.

Goiener comercializa en la actualidad la energía de varios Ayuntamientos como Murgia o Busturia y trabaja con los Ayuntamientos de Bilbao y Usurbil en el área de acción social, en ahorro energético, pobreza energética, bono social,… para informar y capacitar a los trabajadores sociales y que puedan ofrecer recursos para las familias.

Después de la intervención de D. Eduardo Urturri se abre un turno de preguntas y comentarios.

D. Javier Loidi comenta que efectivamente, la energía no es una commodity, en su opinión estamos prácticamente viviendo una inquisición y no comprende cómo los poderes públicos actúan así. Se deben aprovechar todas las formas posibles de energía alternativa, las olas, instalación de placas solares y molinos por todas partes.

D. Xabier Buenetxea pregunta a ver si se podría separar la factura de gas y electricidad para que Goiener comercializara la de la electricidad y se le responde afirmativamente. Asimismo, D. Xabier Buenetxea está a favor de las energías renovables pero también traslada los inconvenientes para las aves de los grandes parques eólicos; habría que ver como pueden resultar menos impactantes y buscar las localizaciones mas óptimas. Los pequeños molinos para el autoconsumo evitan el impacto con la fauna y suministran suficiente energía. En este aspecto se hace un apunte con respecto a la ley que prohíbe las agrupaciones, es decir una comunidad como por ejemplo Sopelmar, no puede instalar generadores eólicos, solo se admiten a nivel particular.

Xabier Buenetxea jaunak proposamena egin du, hain zuzen, erdi- eta goi-tentsioko kableak babestea eraginak saiheste aldera; Udalak ez du ildo horretan jarduteko ahalmenik, ordea.

Josu Ateka jaunak jakin nahi izan du energia % 100 berriztagarri izateari buruzko ziurtagiria ordaindu behar den, hots, energia % 100 berriztagarria garestiagoa den. Eduardo Urturri jaunak erantzun dio eta azaldu dio energia hori ez dela garestiagoa, produkzio-etxeak ziurtagiria ordaindu barik eman behar duela.

Goienerri buruzko informazio gehiago ezagutzeko, EKA-OCUV elkartearen egoitzara jo daiteke: Plaza Barria 12, 1, 48005 Bilbo. Astearte eta ostegunero joan daiteke, 10:00etatik 13:00etara.

**2.-2016-01-28an egindako foroaren akta onestea.**

Natividad Morales andreak xehetasun bat nabarmendu nahi izan du aktaren idazketari dagokionez. Hain zuzen, antzeman du, arestian, bileran hitz egiten zutenen izena zehazten zela, baina azken aktan, aldiz, "pertsonei" buruz hitz egiten dela izenak aipatu beharrean. Eugenia Atin andreak eta Josu Ateka jaunak azaldu dute foroko kideek Tokiko Ekintza Planari egiten dizkioten ekarpenak jasotzean, anonimatua gordetzea nahiago izan dela. Hala ere, printzipioz, beste gai batzuen kasuan saiatuko dira izenak agerrarazten. Iradokizuna idatziz jaso da eta hurrengo aktak idazterakoan kontuan hartuko dute.

Beraz, iruzkin hori aintzat hartu ondoren, 2016-01-28ko akta aho batez onetsi da.

**3.- Udaleko zenbait gairen gaineko informazio orokorra.**

BIZIKLETA PUBLIKO NAHIZ PRIBATUETARAKO "APARKA" SISTEMA BERRIA

Josu Ateka jauna foroari zuzendu zaio eta honako hau azaldu du: urtarrilaren amaieratik Getxon "aparka" sistema berria dago, eta bizikletak modu seguruan aparkatzeko 168 plaza ditu.

Bizikletak mailegatzeko udal-zerbitzua, GetxoBizi, berriztatu eta zabaldu da "aparka" sistema jarrita. Bizikleta publiko nahiz pribatuek erabili dezakete sistema, eta udalerriko 12 tokitan jarri da. Aparkaleku guztiak estalita eta babestuta daude. Sistemak bizikleta publikoaren mailegua eta bizikleta pribatuaren aparkatze segurua batzen ditu.

Sistema horri esker, datuak errazago monitorizatu eta kudeatu daitezke. Zerbitzuak hilabete darama martxan, beraz orain baloratu daiteke horren erabilera eta egokitu daitezke aparkatzeko gehienezko denbora eta ordutegiak, erabiltzaileen beharren arabera.

UDALERRIKO TABERNA ETA JATETXEETAN ITURRIKO URA KONTSUMITZEA SUSTATZEA

Jose Luis Landa jaunak jakitera eman du Bildu udal-taldeak Osoko Bilkuran mozioa aurkeztu zuela, Getxoko ostalaritzan etxeko uraren aldeko kanpaina egiteari buruzkoa. Ekimen horri

D. Xabier Buenetxea propone proteger los cables de media y alta tensión para prevenir impactos pero el Ayuntamiento no tiene capacidad de actuación en este sentido.

D. Josu Ateka quiere saber si el certificado de energía 100% renovable cuesta dinero, es decir si la energía 100% renovable es más cara. D. Eduardo Urturri responde que dicha energía no es más cara, la productora tiene que emitir el certificado sin coste.

Más información sobre Goiener en la sede de la EKA-OCUV. Plaza Nueva 12, 1º. 48005 Bilbao. Todos los martes y jueves de 10 a 13.

**2.- Aprobación del Acta del Foro celebrado el 28.01.16.**

Dª Natividad Morales hace una puntualización respecto a la redacción del acta. Ha apreciado que anteriormente se especificaba el nombre de las personas que intervenían en la reunión y sin embargo en esta última acta se habla de "personas" en lugar de citar los nombres. Dª Eugenia Atin y D. Josu Ateka explican que a la hora de recoger las aportaciones de los miembros del Foro al Plan de Acción Local se ha preferido mantener el anonimato pero que en principio se procurará concretar los nombres de las personas cuando se trate de otros temas. Se anota la sugerencia y se tendrá en cuenta en la redacción de las futuras actas.

Así, una vez tenido en cuenta este comentario, se aprueba el acta del 28-01-2016 por unanimidad.

**3.- Información general acerca de distintos asuntos del Ayuntamiento**

NUEVO SISTEMA "APARKA" PARA BICICLETAS PÚBLICAS Y PRIVADAS

D. Josu Ateka se dirige al Foro para explicar que desde finales de enero Getxo cuenta con un nuevo sistema "aparka" que cuenta con 168 plazas de aparcamiento seguro para bicicletas.

El servicio municipal de préstamo de bicicletas, GetxoBizi, se ha renovado y ampliado con la instalación del sistema "aparka",tanto para bicicletas públicas como privadas, repartidas por 12 puntos diferentes del municipio. Cada aparcamiento está cubierto y protegido. El sistema combina el préstamo de bicicleta pública y el estacionamiento seguro de bicicleta privada.

Este sistema permite monitorizar y gestionar los datos más fácilmente y ahora que llevamos un mes de servicio se podrá valorar el uso y adecuar el tiempo límite y horarios de aparcamiento a las necesidades de los/as usuarios/as.

PROMOCIÓN DEL CONSUMO DE AGUA DEL GRIFO EN LOS BARES Y RESTAURANTES DEL MUNICIPIO

D. Jose Luis Landa comunica que el grupo municipal Bildu, presentó en el Pleno una moción sobre una campaña del agua doméstica en la hostelería de Getxo. A esta iniciativa, el grupo

dagokionez, talde sozialistak erdibideko zuzenketa proposatu zuen. Zuzenketa hori onetsi zen eta honela dio:

1) Udalak nahiz horren erakunde autonomoek antolatutako edo babestutako ekimenetan, botilako uraren kontsumoa ekidingo da ahal den heinean.

2) Osoko Bilkurak honako hau proposatu du: Getxoko Ingurumeneko Tokiko Foroak edo horren menpe dagoen hondakin-lantaldeak jorratzea botilako uraren kontsumoa.

3) Aurreko puntuan adierazitako foroak edo lantaldeak kanpaina bat abiaraziko du udalerriko taberna eta jatetxeetan iturriko uraren kontsumoa sustatzeko. Horretarako, laguntza eskatuko zaie ostalaritzako eta uraren kudeaketari lotutako erakundeetako profesionalei, URA eta Bizkaia Ur Partzuergoetakoei esaterako.

Celia Marañón andreak erakutsi du Ekologistak Martxan Alde Zaharrean iturriko ura sustatzeko erabili zuen liburuxka. Oro har, liburuxkak harrera ona izan du eta Getxoko kanpaina iradokitzeko baliatu daiteke. Hala ere, azken horri dagokionez, saiatu beharko da neutroago egiten, hirugarrenei erasorik egin gabe, hala nola Zabalgarbi enpresari. Bestalde, Celia Marañón andreak aditzera eman du ez duela begi onez ikusten Udalak botilako ura kontsumitzea, etxetik hasi beharra dagoela. Haren ustez, udalak aspalditik eredu zen eta iturriko ura banatzen zuen, aurreko egunean jakin zuen ordea Osoko Bilkuretan botilatxoetako ura edaten dutela.

Javier Loidi jaunak azpimarratu du beste herri batzuetako jatetxeetan, Frantzia eta Estatu Batuetakoetan esaterako, iturriko ura eramaten dutela mahaira hura eskatu barik, eta eredu horri jarraitu diezaioketela.

Natividad Morales andreak gogorazi du iturriko urak fluor-eta kloro-maila altuak dituela, eta horiek kalte egiten diotela osasunari.

Foroak adierazi du hitz egin daitekeela publizitate-kanpainetan espezialista den enpresa batekin. Era berean, adierazi du ostalariei inkestak eta elkarrizketak egin behar zaizkiela, liburuxka diseinatu behar dela eta garai modernoetara egokitutako komunikazio-kanalak erabili behar direla.

Udalak gai hori URArekin eta Ur Partzuergoarekin batera lantzeko konpromisoa hartu du.

TXILARDI ATLANTIKOAREN BERRESKURAPENA

Xabier Buenetxea jaunak jakinarazi du Lurgaia Fundazioak abiaraziko duela Galeako txilardi atlantikoaren berreskurapena. Oinezkoen, bizikleten, motozikleten, zaldien eta abarren zirkulazioa txilardiaren birsorkuntza suntsitzen eta geldiarazten ari da. Aurten, bi aukera aztertzen ari dira: gune handienak ixtea edo itxitura txikiak erabiltzea modu naturalean saihesteko horiek zapaltzea, horrela txilardia birsortuko baita.
Degradazio handieneko guneetan, baliteke itxitura egiteko sistema zurruna jartzea, itxitura gogorrak jarrita.

Javier Loidi jaunak nahiago du bigarren aukera, hots, itxitura

socialista propuso una enmienda transaccional que fue aprobada y que se transcribe a continuación:

1) En los actos organizados o patrocinados por el ayuntamiento o sus organismos autónomos se evitará, en la medida de lo posible, el consumo de agua embotellada.

2) Este Pleno propone que en el Foro Local de Medio Ambiente o en el grupo de trabajo de residuos dependiente del foro, se aborde el tema del consumo del agua embotellada.

3) Que en el mencionado foro o grupo de trabajo se ponga en marcha una campaña para fomentar el consumo de agua del grifo en los bares y restaurantes del municipio. Para ello se buscará la colaboración de los profesionales de la hostelería y de otras entidades vinculadas a la gestión del agua tales como URA o el Consorcio de Aguas de Bizkaia.

Dª Celia Marañón muestra el folleto que utilizó EkologistakMartxan para una campaña de promoción del agua del grifo en el Casco Viejo. El folleto es en general bien aceptado y podría inspirar la campaña de Getxo salvo por intentar ser más neutral, sin interceder ni atacar a terceras partes como puede ser Zabalgarbi. Asimismo, Dª Celia Marañón señala que no le parece bien que en el Ayuntamiento se esté consumiendo agua embotellada; debemos empezar por la casa. Ella pensaba que desde hacía años el Ayuntamiento estaba dando ejemplo con agua del grifo y el otro día se enteró de que en los plenos beben botellines de agua.

D. Javier Loidi destaca que en otros países como Francia o Estados Unidos te sirven en los restaurantes agua del grifo sin pedirla y que podría ser el ejemplo a seguir.

Dª Natividad Morales nos recuerda que el agua de grifo contiene altos contenido de flúor y cloro que son perjudiciales para la salud.

El Foro señala que se podría hablar con una empresa especialista en campañas de publicidad. Habría que hacer encuestas / entrevistas a los hosteleros y diseñar un folleto y utilizar canales de comunicación adaptados a los tiempos modernos.

El Ayuntamiento se compromete a tratar el tema con URA y el Consorcio de Aguas.

RECUPERACIÓN DEL BREZAL ATLÁNTICO

D. Xabier Buenetxea da a conocer que la Fundación Lurgaia va a iniciar la recuperación del brezal atlántico de la Galea. El tránsito de personas, bicicletas, motocicletas, caballos, etc. está destruyendo y frenando la regeneración del brezal. Se están estudiando dos alternativas para este año: cerrar zonas más grandes o utilizar cierres pequeños para que de forma natural, evitando el pisoteo, el brezal se regenere.
El cierre, en aquellas zonas que se encuentran mas degradadas, quizás se decante por el sistema rígido, con cierres duros.

D. Javier Loidi es más partidario de la segunda opción, cierres

txikiak jarri, eta naturari utzi bere lanak egiten.

Josu Intxaurraga jauna ez dago zelaian hesiak jartzearen ezta bidea ixtearen alde. Oinezkoa da eta gustuko du bideetatik irtetea, jakina, txilardiak zapaldu barik. Bizikleten kasuan, egoera bestelakoa dela esan du.

Dimas Ramos jaunak aditzera eman du bizikleten aldekoa dela, hala ere, gune batzuetan horren erabilera mugatu behar dela uste du. Haren ustez, Galean bide bakarretik zirkulatu behar dute.

Carlos Arana jaunak une hori baliatu du gogora ekartzeko garrantzitsua dela bideen erabilera arautzen dituen ordenantza berrikustea gurpil-aulkien erabilera kontuan hartzeko.

**4.- Galde-eskeak.**

FADURA INGURUAN HOBEKUNTZA HIDRAULIKOA EGITEKO JARDUKETEN PROIEKTUA, GOBELA IBAIAREN EGOKITZAPEN HIDRAULIKORAKO ETA INGURUMEN-EGOKITZAPENERAKO PROIEKTUTIK AURRERATUAK.

Xabier Buenetxea jaunak xehetasun handiagoz aztertu du proiektu hau: “Fadura Inguruan Hobekuntza Hidraulikoa egiteko Jarduketen Proiektua, Gobela Ibaiaren Egokitzapen Hidraulikorako eta Ingurumen Egokitzapenerako proiektutik aurreratuak”. Zenbait elkarte kontserbazionistekin eztabaida izan ondoren, akats nahiko larria antzeman dute. Euren ustez, akatsak eragin zuzena izango du Bolueko hezegunearen gaur egungo eremuan. Printzipioz, akatsa erraz zuzendu daiteke edo, behintzat, horren eragina murriztu.

Dokumentuaren arabera, eremu urpegarri bat proiektatu dute ibaian goragoko tartetik, Gobela ibaiaren ibilguaren paraleloan hedatuko dena, paraleloko ibilgu zabalago bat gisa; eremu urpegarria ibaiaren kota baino pixka bat altuago egongo da, baina gainetik pasealekua duen ezpondaren kota baino baxuago. Ibaiak ur gehiago jariatzean, eremu hori urez bete dadin jarriko da eta, horrela, ura atera ahal izango da. Paraleloko lautada urpegarria Bolueko hezegunera iristean antzeman da akatsa, zehazki. Dokumentuaren arabera, lautada eta horren paraleloko ibilbidea mantenduko dira, baina horrek Bolueko hezegunearekin mugan dagoen eremuko banda paraleloa 2-3 metroan betetzea dakar.

Uste dute kontuan izan beharko litzatekeela gertakari hori ekiditeko aukera, hezegunearen azalera dagoeneko nahiko murriztua delako, hau da, lautada urpegarria hezeguneari, zuzenean lotzea azken horrek uholdeen emariak ere hartu ditzan. Bestalde, adierazi dute ere hezegunearen azalera handitzeko aukera, Gobela ibaiaren ibilguaren ibarreraino luzatuta. Horrela, lehenengoaren azalera handituko litzateke eta, horrekin batera, uholdeen emaria jasotzeko duen edukiera.

Horrenbestez, eta dokumentuan proiektatu den diseinua proposatzeko egin diren kalkuluak ezagutzen ez direnez gero, eskatu da teknikari bat egotea / aurkeztea, jatorrizko diseinua aldatu edo egokitu dezakeena, konponezina bihurtu aurretik. Interesgarria litzateke bilera hori ahalik eta lasterren egitea, Gobelako ibaiko obra ukipen-eremu horretara iritsi baino lehen.

pequeños y dejar que la naturaleza trabaje.

D. Josu Intxaurraga no es partidario de poner barreras en el campo ni cerrar el paso; como peatón, le gusta salirse de los itinerarios, eso sí, sin pisar los brezales por supuesto. Otra cosa son las bicicletas.

D. Dimas Ramos señala que él está a favor de la bicicleta pero que hay ciertas zonas en las que se debe restringir su uso y por la Galea deberían ir solamente por un camino.

D. Carlos Arana aprovecha para recordarnos la importancia de la revisión de la ordenanza de usos de las vías para tener en cuenta la circulación de las sillas de ruedas.

**4.- Ruegos y preguntas.**

PROYECTO DE ACTUACIONES PARA LA MEJORA HIDRAÚLICA DE LA ZONA DE FADURA, ANTICIPADAS DEL ACONDICIONAMIENTO HIDRAÚLICO Y AMBIENTAL DEL RÍO GOBELA

D. Xabier Buenetxea ha estudiado con mayor detalle el "Proyecto de Actuaciones para la Mejora Hidraúlica de la Zona de Fadura, anticipadas del Acondicionamiento Hidraúlico y ambiental del río Gobela", y tras debatirlo con diferentes asociaciones conservacionistas, se han dado cuenta de un error bastante grave, que a su parecer afectaría directamente a la actual extensión del humedal de Bolue y que en principio pudiera ser subsanado de manera sencilla o al menos reducir su impacto.

En el documento se proyecta una zona de inundación que desde aguas arriba discurre paralela al cauce del río Gobela, a modo de un cauce más ancho paralelo y a una cota algo superior a la del río e inferior a la del talud sobre el cual circula un paseo. Su función es que cuando el río baje crecido esta zona se pueda llenar de agua facilitando así su desagüe. El conflicto observado viene del momento en el cual esta llanura paralela de inundación llega al humedal de Bolue, ya que en el documento se proyecta mantener esta llanura y su camino paralelo, lo que implica el llenado de una banda paralela de 2-3 metros de la zona limítrofe del humedal de Bolue.

Se considera que se debería tener en cuenta la posibilidad de evitar este hecho, ya que el humedal ya está bastante reducido superficialmente, y unir directamente esta llanura de inundación con el propio humedal y que este funcione como asimilador, también, del agua procedente de los caudales de avenida. Se observa también la posibilidad de incrementar la superficie del humedal hasta la ribera del cauce del río Gobela, incrementando así la superficie del primero y su capacidad de asimilación del agua procedente de las crecidas.

Por ello y teniendo en cuenta que no se dispone de los cálculos extraídos para proponer el diseño proyectado en el documento, se solicita la presencia/ presentación de algún técnico que pudiera aclarar y la posibilidad de cambiar o adaptar ese diseño original, antes de que sea irreversible. Esta reunión sería interesante realizarla lo antes posible, antes de que la obra del

río Gobela llegue a esta zona de afección.

Joseba Arregi jaunak jakinarazi du proiektuak izapide guztiak bete dituela; Osoko Bilkuran onetsi da, jendearen parte-hartze osoarekin, Uholdetarako Informazio Batzorde Bereziak aztertu du eta jendearen aurrean erakutsi da. Bide batez, gehitu du proiektua idatzi duten URAko teknikariek beti saiatu direla hezegunea gordetzen eta babesten.
Javier Loidi jaunak aditzera eman du hezegunea errespetatzeak lehentasuna duela.

El Sr. Joseba Arregi indica que el proyecto ha cumplido todos los trámites, hasta su aprobación en Pleno con plena participación ciudadana, en la Comisión Informativa Especial de Inundaciones y sometido a información pública. Añade que los técnicos de URA que han redactado el proyecto, han intentado siempre, preservar y proteger el Humedal.

D. Javier Loidi señala que respetar el Humedal es prioritario.

Txefo Landa jaunak jakinarazi dio Foroari URArekin hitz egin zuela eta esan ziotela hezegunearen gainean gutxieneko eragina izango duela.
Forora bertaratzeko eta egingo dituzten lanak zertan dautzan azaltzeko konpromisoa adierazi du URAk. Obra aurreikusitakoa baino beranduago hasiko da futbol-zelaia kutsatuta egon daitekeen lurzoruan dagoelako eta horrek prozesu luzeagoa dakarrelako. Agentziak nortzuk eta noiz etorriko diren baieztatu bezain laster jakinaraziko zaio foroari. Horrenbestez, hurrengo bilera, ziur asko, URAren aurkezpenaren egun berean egingo da.

D. Txefo Landa comunica al Foro que habló con URA y le indicaron que la afección al Humedal era mínima.
Desde URA le han trasladado su compromiso para acudir al Foro y explicar en que consisten los trabajos que se va a hacer. La obra va a comenzar más tarde de lo previsto porque al estar parte del campo de futbol en suelo potencialmente contaminado, el proceso es más largo. En cuanto se confirme cuándo y quiénes vienen se le comunicará al Foro. Por lo tanto, la fecha de la próxima reunión probablemente coincidirá con la exposición por parte de URA.

<u>2015EAN BIRZIKLATZEKO BILDU DIREN HONDAKINAK</u>

Agurtzane Olaiz Egurrola andreak ezagutu nahi izan ditu 2015eko hondakin-bilketaren datuak, Getxoberriko 1396. zenbakian (2016ko otsaileko 18 / 28) argitaratu zirenak. Posta elektronikoz bidaliko diote argitalpena.

<u>RESIDUOS RECOGIDOS PARA SU RECICLAJE DURANTE 2015</u>

A Dª AgurtzaneOlaizEgurrola le gustaría conocer los datos de recogida de residuos del año 2015 que fueron publicados en Getxoberri en el número 1396 (18 /28 de febrero de 2016). Se le va a enviar por email esta publicación.

<u>JULEN REKONDOREN AGURRA</u>

Foroko dinamizatzailea, Julen Rekondo jauna, agurtzeko bazkaria 2016ko apirilaren 9an egingo da 14:45ean Unaique tabernan; Algortako Basagoiti etorbidearen eta Juan Bautista Zabala kalearen arteko plazan dago.

<u>DESPEDIDA DE JULEN REKONDO</u>

La comida de despedida del dinamizador del Foro, D. Julen Rekondo tendrá lugar el viernes día 9 de abril de 2016 a las 14:45 en la Taberna Unaique se encuentra en la plaza que hay entre la Avenida Basagoiti y la calle Juan Bautista Zabala en Algorta.

Carlos Arana jaunak proposatu du gonbidapena Getxoko Ingurumeneko Foroko kide guztiei luzatzea, hau da, urte guzti hauetan bileretan parte hartu duten guztiei.

D. Carlos Arana sugiere extender la invitación a todos los miembros del Foro de Medioambiente de Getxo que han participado a lo largo de los años en las diferentes reuniones.

Eugenia Atin andreak deialdia egingo du eta Dimas Ramos jaunak, jatetxeko erreserba.

Dª Eugenia Atin se encargará de lanzar la convocatoria y D. Dimas Ramos se ocupará de la reserva en el restaurante.

Bilera amaitutzat eman da Getxon, 21:00etan.

En Getxo, a las 21,00 horas se da por finalizada la reunión.

: